



## **ZIURTAGIRI ESKAERA**

**“ETA GU ZER GAUDE PREST EGITEKO INKLUSIOAREN ALDE?”**

### **“ZUBIAURRE IGERIKETA KLUBA”-ren KONPROMEZUA**

Zubiaurre Igeriketa Kluba igeriketa erdigunea duten ekintzak bultzatzeko Azkoitiko herri ekimen bat da. Taldean egiten dugu lan eta herritarren beharrei erantzuteko konpromezua dugu.

Jakitun gara halaber aniztasun funtzionalari dagokionean errealitate ugari eta anitzak ditugula begien aurrean, pertsonen kopuru adina hain zuzen ere. Baina ez ditugu denak ikusten, naiz eta begien aurrean izan egunero. Ertzak gure ikusmiratik kanpo daude, bazterregi guk erreparatu ahal izateko. Gabezia horri erantzutera dator ondoko konpromezu xumea bezain irmoa.

1. Antolatzen ditugun jardunaldi, ikastaro edo eta eguneroko ekintza ezberdinetan aniztasun funtzionalari erantzuteko beharrezkoak diren moldaketa eta baliabideak jartzen saiatuko gara.
2. Antolatzen ditugun ekintza irekietan (San Andres Saria, 100x100,...), jarduera inklusiboa dela eta aniztasun funtzionala duten edozein pertsona ongi etorria izango dela publikoki zabalduko dugu.
3. Herriko Marea Urdina Elkartearekin elkarlana sustatuko dugu igeriketaz gain herrian inklusibitatea bultzatzeko eskatzen zaigun edozein ekimenetan.
4. Igerilekua izanik gure espazio naturala, aniztasunari erantzuteko beharrezkoak diren eskaerak bideratzeko konpromisoa hartzen dugu, dena delakoa izanda ere beharrezkoa.
5. Gure elkartearen muina umeak izanik eta etapa horrek gizarte inklusioan jokatzen duen ezinbesteko garrantziaz jabeturik, familiekin elkarlanean umeen beharrezko sozialei erantzuteko ahalegin osoa egingo dugu.

Behar den tokian behar duenak jakin dezan

Azkoitian 2019-ko Ekainaren 5ean

**Zubiaurre Igeriketa Kluba**